

Garapen Iraunkorra eta Nazio Batuen ingurumen politikak: 50 urteren balantze kritikoa: «Lankidetzza Globala suspertu» Garapen Iraunkorraren 17. helburuaren adibidea

(Sustainable development and the United Nations' environmental policies: a critical balance of 50 years: recovery of global cooperation as an example of the 17th Sustainable Development Goal (SDG))

Iñaki Barcena Hinojal, Izaro Basurko Pérez de Arenaza*

Ekopol-Zientzia Politikako Saila, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (UPV/EHU)

LABURPENA: Nazio Batuen Erakundeak 1972.n urtean «Man and Biosphere» nazioarteko konferentzia antolatu zuen Estokolmon gure planetan gertatzen ari zen krisi sozio-ekologikoari erreparatzeko. Sozio-politikoki aldaketa sakonak ezagutu ditugu munduan garai horretatik hona, egoera bipolar batetik geopolitika multipolar batera pasatu gara eta globalizazioaren azelerazio prozesu azkarra ezagutu dugu, Berlingo harresia desagertu zenetik COVID-19aren pandemia etorri arte, besteak beste. Ordutik hona, azken mende erdi honetan Nazio Batuen Erakundea (NBE) ingurumen politikoen erdigunean izan dugu, erreferente printzipala izanik, bai munduko Nazio-estatuentzat eta bai munduko eragile sozio-politiko eta herritarrentzat ere. Artikulu honetan, azken 50 urte hauetan Nazio Batuek izandako mugarri eta ardatz nagusiek errepaso labur eta kritikoa egiten da lehengo atalean, bigarren atalean Garapen Iraunkorraren 17. helburuari egiten zaio erreferentzia eta hirugarrenean Garapen Iraunkorraren kontzeptuari eta berari lotutako ingurumen politiken emaitzei begiratzen zaio.

HITZ GAKOAK: Garapen Iraunkorraren 17. Helburua, aliantzak; krisi sozio-ekologikoa, ingurumen politikak, zor ekologikoa,

ABSTRACT: In 1972 the United Nations organized the international conference «Man and Biosphere» in Stockholm with the aim of observing the socio-ecological crisis that was taking place on our planet. Since this first environmental international conference, we have known deep socio-political changes in the world, we have gone from a bipolar situation to a multipolar geopolitics and we have known the rapid process of accelerating globalization from the disappearance of the Berlin Wall to the pandemic of COVID-19, among others. Since then, in this last half century, this international organization (UN) has been a major benchmark in the center of environmental policy, both for all the State-Nations and for socio-political agents and citizens of the world. In this article, we offer a brief and critical review of the main milestones and axes of the United Nations in the last 50 years is made in the first paragraph, in the second section, we do reference to the Objective 17 of the Sustainable Development Goals and in the third section, we analyzed the concept of Sustainable Development and the results of the associated environmental policies.

KEYWORDS: Sustainable Development Goal, SDG, Alliances, Socio-ecological crisis, Environmental Policies, Ecological Debt.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Iñaki Barcena Hinojal, Zientzia Politikako saila, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (UPV/EHU) (Leioa, Bizkaia). – inaki.barcena@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-8276-9758>.

Nola aipatu / How to cite: Barcena Hinojal, Iñaki; Basurko Pérez de Arenaza, Izaro (2021). «Garapen Iraunkorra eta Nazio Batuen ingurumen politikak: 50 urteren balantze kritikoa: "Lankidetzza Globala suspertu" Garapen Iraunkorraren 17. helburuaren adibidea»; *Ekaia*, ale berezia 2021, 265-275. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.22125>).

Jasotze-data: 2020, urriak 09; Onartze-data: 2021, abenduak 08

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2021 UPV/EHU



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. SARRERA: NBE ETA AZKEN MENDE ERDIKO INGURUEN POLITIKEN ARGILUNAK.

Laster 50 urte beteko dira Nazio Batuen Erakundeak Stockholmen (1972) «Gizakia eta Biosfera»-ren Nazioarteko Goi-Bilerak antolatu zutela. Bertan krisialdi ekologikoaren gaineko lehengo nazioarteko alarma piztu zen. Stockholmeko gailurreko ekarpen berria, ingurumen krisiaren nazioarteko eztabaida diplomatikoaren hasiera izatean datza, hazkunde ekonomikoaren mugaz mundu osoari ohartaraziz, Donella Meadows eta bere lagun ikertzaileek Erromako Klubaren txostenak «The Limits to Growth» (Hazkundearen mugak) [1] argitaratu zituzten sasoi berean. Stockholmeko bileraren dokumentu ofizialetan ekogarapena erabili zen kontzeptu berri moduan, uretan, airean eta lurrian sortutako kutsadura eta baliabide naturalak xahutzen dituen garapen eredu horren aurkako antidoto legez.

Harrezkero, eta hamar urtero Nazio Batuen Ingurumen Goi-Bilerak antolatu dira. Bigarren konferentzia, Suediatik Afrikara abiatu zen eta 1982an Nairobiri (Kenya) bildu ziren nazioarteko ordezkariak. Bertan Nazio Batuen Garapen eta Ingurumen Programaren egoitza ezarri zen eta modu honetan ekologia eta garapenaren gaiak harremanetan jarri ziren. Urte berean eta ez kasualitatez, Nazio Batuek Brandt Txostena argitara eman zuten, non, Iparra eta Hegoaren arteko desorekak eta harremanak aztertzen ziren eta herri garatuek Hegoaldeko hemisferioko herri txirotuei egiten diegun baliabide natural energetiko eta sozialen harrapaketa iraunkorraren kritika eta salaketa egiten zen [2]. Nairobiko prozesuan saio eta esfortzu bereziak egin ziren garapena eta ekologiararen perspektibak batera aztertzeko, arte-rako bata eta bestearen kezkak, idazleak, elkarteak edota mugimenduak bide desberdinetik ibili baitziren [3].

Agian, Nairobiko konferentziaren fruitu nagusia bost urte geroago etorri zen, hots, Ingurugiro eta Garapenerako Mundu Batzarrak 1987an «Brundtland Txostena»-ren izenarekin argitaratu zena [4]. Testu horretan, batzuek esan duten moduan, kontserbazionismo eta garapenaren arteko batasunetik, garapen iraunkorra jaio zen, gaur lelo unibertsala bihurtu dena. Gro Harlem Brundtland, Norvegiako politikari sozialdemokratak zuzendutako txosten horretan pobrezia, planetaren lehendabiziko arazo ekologikoa kontsideratzen da eta beragandik ihes egiteko gaurko belaunaldi eta etorkizuneko arteko konpromisoa onartu beharra dagoela dio, ditugun erre-serba naturalak ez agortzeko.

Bost urte geroago, Rio de Janeiron inoiz nazioarteko ordezkari politikoei zein gizarte mugimenduei eragindako bilkura ekologikorik handiena egin zen. 1992. urteko «Lurraren Gailurrean», NBE-aren batzar batean inoiz egon den gobernarien kopuru altuena bildu zen Lurraren Gutuna, Agenda XXI eta Klima, Biodibertsitatea eta Basoen Iraupenerako akordioak sinatzeko.

Maurice Strong enpresari kanadarrari berriz ere, Rioko konferentziaren presidentea izatea egokitu zitzaion, Stockholmen 20 urte aurretik gertatu zen moduan. Bere hitzetan, hitzetatik praktikara pasatu behar zen eta une politiko ezin aproposagoa zen, Ekialde-Mendebaldeko lehiaren apaltzeak «bakearen dibidendua» martxan jartzeko aukera ematen baitzuen askoren ustez.

Rio de Janeiroko konferentzian (1992) ekologia eta ekonomiaren arteko ezkontza eman zen. Iparreko eta Hegoko gobernuen arteko aliantza bilatzen zen, aurrekoek aldaketa klimatikoari galga jartzeko eta bigarrenek biodibertsitatea ziurtatzeko eta produktu nagusia Agenda 21 deritzon programa izan zen, hitzarmen garrantzitsua biodibertsitatea eta klima aldaketa batera erantzuteko. Baina horretarako dirua behar zen. Hilary French ikerlari iparramerikarrak Rioko «Lurraren Gailurraren» ondotik idatzi zuenez, Agenda 21 hori finantzatzeko 5000 milioi dolarren aurrekontua zegoen, *Global Environmental Facility* delakoan, Mundu Bankuaren dependentzian eta bere ustez ez zen diru nahikorik erronkari eusteko, baina diru kopuru hori ere ez zen dena gastatu [5].

Hamarkada bat pasako da eta 2002. urtean Hegoafrikako Johannesburgon egin zen hurrengo NBE ingurumen gailurra. Porrot nabarmen bat izan zen, krisi politiko-ekologikoaren bi dimentsioak agerian jarri baitziren. Alde batetik Nazio Batuen erakundearen ahalmen eskasa arazo sozio-ekologiko globalen aurreko erabaki eraginkorrak hartzeko eta bere indar eskasia ere energia, ura, nekazaritza edo aldaketa klimatikoaren politika berritzaileak mundu mailan markatzeko. Bigarrenez, Nazio Batuen Erakundearen ordez munduko Estatu nagusiak (G-7, G-8 zein G-20) eta enpresa multinazionalak ingurumen politiken diseinatzaileak zirela. Beraz krisi ekologikoa eta demokratikoa pare parean islatu ziren. Kofi Annan NBE-aren **idazkari orokorrak martxan jarritako** *Global Compact* estrategiak eragile sozio-politikoaren «borondatezko» akordioetan begirada jartzen zuen eta borondatea gutxi egon zen [6].

2012eko Ekainean Nazio Batuen Erakundeak nazioarteko azken goi-bilera bat deitu zuen, berriz Rio de Janeiro (Rio+20). «Greening the economy- Ekonomia berdetuz» izenarekin. Inork gutxi espero zuen, nazioarteko instituzioen dinamikak ikusirik eta Nazio Batuen Erakundearen ahulezia eta marjinazioa kontutan harturik, gizateriak aurrez aurre dituen erronka ekologikoak konpontzeko (energia fosilen agortzea, aldaketa klimatikoa, biodibertsitatearen galerak, istripu nuklearrak...) horrelako bilera diplomatiko baten ostean munduko gobernuak eta batez ere enpresa transnazionalak euren jokamoldeak aldatzeko beharturik sentituko direnik.

Esan dugun moduan, azken mende erdian Nazio Batuen Erakundea instituzio printzipala izan da ingurumen politiken ardatzak eta lehentasunak markatzerakoan eta bertan sortu diren ekimenak eta dinamikak mundu osoko erreferentzia izan dira. Dena den, NBE-aren legitimazioa eta autoritatea ez dira batera joan eta bere planak ez dira bete. Hurrengo atalean adibide bat ikusiko dugu.

1. taula. Milurteko Garapen Helburuen (2000-2015) eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen (2015-2030) zerrenda.

Milurteko Garapen Helburuak 2000-2015	Garapen Iraunkorrerako Helburuak 2015-2030	
1. Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea	1. Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.	10. Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.
2. Lehen hezkuntza unibertsala lortzea	2. Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekezaritzat jasangarria bultzatzea.	11. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
3. Genero berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea	3. Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.	12. Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.
4. Haurren heriotza tasak gutxitzea	4. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.	13. Neurri urgenteak hartzea klima-aldatetaren eta haren ondorioen aurka egiteko
5. Amen osasuna hobetzea	5. Genero berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahaldundutzea.	14. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarriarean erabiltzea garapen jasangarriari begira.
6. HIESari, malariari eta beste gaixotasunei aurre egitea	6. Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.	15. Lehorreko bizitza babestea, lehengoratztea eta modu jasangarriarean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriarean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea	7. Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.	16. Garapen jasangarriarako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
8. Garapenerako nazioarteko elkarteak sustatzea	8. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.	17. Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarriarako Munduko Ituna biziberritzea.
	9. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.	

2. NAZIO BATUEN GARAPEN IRAUNKORRAREN 17. HELBURUA: EZARPEN BALIABIDEAK SENDOTZEA ETA GARAPEN IRAUNKORRAREN MUNDUKO ITUNA BIZIBERRITZEA

2015eko Irailean New Yorken planeta zabaletik joandako Estatu eta Gobernu buru eta ordezkariak Garapen Iraunkorrerako Helburu berriak sinatu zituzten. Dokumentu horretan garapen iraunkorraren 17 helburuak eta 169 erronkak agertzen dira 15 urteetarako (2015-2030) agenda unibertsal bat ezarriz «gizateriarentzat eta planetarentzat garrantzi kritikoko esferetan ekintzak suspertuko dituztenak». Dakigunez 17 helburu hauek 2000. urtean ezarritako 8 garapen helburuei txanda hartzen zieten, emandako emaitza eskasak eta gero, indar berriekin eta asmo handinahiekin ekiteko.

Gure kasuan, artikulua honetan 17. helburuari erreparatuko diogu. Has-teko, 2000. urteko helburuetan 8.a zenaren azterketa egin eta gero, bi epeal-dietan lotuta baitaude helburu antzerako edo parekoak diren aldetik, balan-tze bateratu bat egiten saiatuko gara.



1. irudia. 17 helburuaren logoa.

Nabaria denez, 2000. urteko 8 helburuetatik, 21 helmuga, eta 60 adie-razletatik, 2015ean 17 helburu eta 169 erronketara pasatzean Nazio Batuen helburu sozioekologikoen zerrenda luzatzeaz aparte, analisi sakonagoa eta konpromiso sendoagoak agertu ziren, hurrengo 15 urteetan ardatz eta gida izateko.

Alacanteko Unibertsitateko Carlos Gomez Gil soziologoak dionez: *Garapen Iraunkorreko Helburuen 2030 Agenda Milurtekoko Garapen Helburuetan jasotako konpromiso eta akordioen ondorengoa da, 2000tik 2015era bitartean hartzen zituztenak, eta ez da egin akordio horien betetze politiko eta teknikoaren ebaluazio zehatzik, eta, beraz, ez dugu behar bezalako ebidentzia zientifikorik munduko garapen-politikak behar bezala bide-ratzeko [7].*

Bestalde, 2000-2015 epealdiaren gainean egindako balantzea ez zen baikorra, hainbat puntuetan hobekuntzak nabarmentzen ziren, adibidez Mundu Bankuaren datuen arabera, 1,25 dolarrekin bizi diren pertsonen portzentajea %47-tik 1990-ean %24-ra murriztu zen 2008-an, baina mila milioi pertsonak (munduko %16-a) egunean 1,25 dolarrekin bizitzen jarraitzen zuten eta horien %80a Sahara Hegoaldeko Afrikan eta Hegoaldeko Asian aurkitzen dira [8].

Dena den, beste batzuen ustez, bi prozesu horiek oso desberdinak dira eta diferentzietan eta ezaugarri desberdinetan erreparatzen dute: *Garrantzitsua da azpimarratzea GIHak ez direla, inondik ere, MGHen jarraipen bat. Egindako ibilbideak eta MGHen eraikitze- eta ezarpen-prozesuan ikasitakoak agenda berri bat ekarri dute berekin, aurrekoa baino konplexuagoa, aberatsagoa eta handiagoa dena. MGHak eta GIHak ekarri zituzten Nazio Batuen bi prozesuak oso desberdinak dira, bai izaerari bai ikuspegiari dagokionez. GIHek goragoko maila batean eragiten dute. MGHen arreta-gune nagusia pobrezia murriztea zen, baina GIHena zabalagoa eta handiagoa da: garapen iraunkorra. Hau da, GIHak garapen-bidean dauden herrialdeetan pobrezia desagerraraztera bideratuta daude, eta hori ez ezik, funtsezko aldaketak sustatzen dituzte herrialde guztietan, unibertsaltasunaren printzipioa oinarri hartuta eta munduko herrialde guztiguztientzako iraunkortasunarekin lotutako alderdi guztietan erronkak eta helburuak jarrita. Beraz, ez dira pobrezia desagerraraztearekin lotutako helburu-multzo soil bat, eta betiko Iparralde/Hegoalde agendatik harago doaz. MGHak emaille-hartzaile logikan oinarrituta pentsatu ziren, eta hortaz, herrialde guztiek ez zituzten erantzukizun berak. Hegoaldeko herrialdeek beren garapen-ereduak berrikusi eta hobetu behar zituzten, eta Iparraldeko herrialdeen zeregin nagusia garapen-prozesu horiek laguntzea zen, baliabideak emanez eta mobilizatuz. GIHek onartzen dute leku guztietan daudela arazoak, ez bakarrik herrialde pobreetan, eta Iparraldeko herrialdeetako bizimoduak eragin zuzena duela Hegoaldeko gizarte- eta ingurumen-gaietan [9].*

Guri dagokigun helburuari (8. Garapenerako nazioarteko elkarteak sustatzea) eta adierazleei dagokionez; 2008an, garapenerako laguntza ofizialaren ordainketa garbiak (AOD) % 10,2 igo ziren 119.800 milioi dollarreraino, inoiz izandako kopururik altuena, baina urte berean, 2011an, Dinamarca, Luxenburgo, Norvegia, Herbehereak eta Suedia izan ziren AOD errenta gordinaren 0,7ko helburua lortu edo gainditu zuten herrialde bakarrak [10]. Ez ziren abiatzeko datu positiboak baina NBE-ren aldetik esfortzu handiago bat ezarri zen 2015-2030 tarterako.

Garapen Iraukorrerako 17. Helburuak «Ezarpen baliabideak sendotzea eta Garapen Iraunkorreko Munduko Ituna biziberritzea» du titulutzat eta bere garapenean 6 arlo desberdinei lotutako konpromisoak eta helmugak jartzen dira: Finantzak, Teknologia, Gaitasuna, Merkataritza, Arau- eta

erakunde-koherentzia eta datuak, gainbegiratzea eta kontuak ematea, azken atala izanik.

- A) **Finantzak.** Lehengo atalari dagokionez, arlo finantzarioan helburu garbia da: «Garapen-bidean» dauden herrialdeetarako hainbat iturritako finantza-baliabide gehigarriak mobilizatzea eta BPG-ren % 0,7 sinatu zuten herrialdeek, hartutako konpromisoa errespetatzea eta laguntza horietatik % 0,15 eta 0,20 artean herrialde gutxien «garatu eta aurreratu» joan beharko lirateke.
- B) **Arlo teknologikoa** Ipar-hego, hegoalde-hego eta triangelu-formako eskualdeko eta nazioarteko lankidetzak hobetzeko konpromisoa hartzen da, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren alorrean. Espresuki ekologikoki arrazionalak diren teknologien garapena sustatzea, eta teknologia bankua eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloko gaitasuna sortzen laguntzeko mekanismoa martxan jartzea, beranduenez 2017an, aurrerapen gutxien duten herrialdeentzat, eta teknologia instrumentalen erabilera areagotzea, bereziki informazioaren eta komunikazioen teknologiarena.
- C) **Gaitasuna sortzea** da hurrengo pausua. Garapen bidean dauden herrialdeetan gaitasun efikazak eta espezifikoak sortzeko jarduerak egiteko nazioarteko laguntza handitzea proposatzen da, Garapen Iraunkorreko Helburu guztiak ezartzeko plan nazionalak gomendatzen dira, Iparraldearen, Hegoaldearen eta Triangeluaren arteko lankidetzaren bidez.
- D) **Merkataritza.** Nazio Batuek alde anitzeko merkataritza-sistema unibertsala sustatzea, arauetan oinarritua, irekia, diskriminaziorik gabea eta bidezkoa nahi dute, Munduko Merkataritza Erakundearen esparruan. Helburu zehatz bat markatzen dute Garapen bidean dauden herrialdeen esportazioak nabarmen handitzea, bereziki, munduko esportazioetan gutxien aurreratu diren herrialdeen parte-hartzea bikoizte aldera 2020ra.
- E) **Arau- eta erakunde-koherentzia.** Puntu honetan Nazio Batuek munduko egonkortasun makroekonomikoa handitzea bilatzen dute eta , garapen iraunkorrerako politiken koherentzia eta Garapen Iraunkorrerako Mundu Aliantza hobetuz, hainbat interesdunen arteko aliantzez osatua. Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sustatzen eta esperientzia eta baliabideak lortzeko estrategiak aprobetxatuz.
- F) **Datuak,** gainbegiratzea eta kontuak ematea. Arlo honetan bi helmuga markatzen dira: 2020rako garapen bidean dauden herrialdeei, gutxien aurreratuta dauden herrialdeei —garapen bidean dauden uharteetako estatu txikiak barne— datu egokiak, fidagarriak eta kalitate handikoak eskuratzeko aukera nabarmen handitzea, diru-sarreraren, sexuaren, adinaren, arrazaren, jatorri etnikoaren, mi-

grazio-estatusaren, desgaitasunaren, kokapen geografikoaren eta testuinguru nazionaletan egokiak diren beste ezaugarri batzuen arabera banakatuta. Eta bigarrenez, 2030 urterako, Garapen iraunkorraren arloko aurrerapenak neurtzeko garatzeko bidean dauden herrialdeetan estatistika-gaitasuna sortzen laguntzea.

2020. urtean, COVID-19ren pandemia mundu osora zabalduta den urtean, Nazio Batuek egiten zuen balantzea ez zen baikorra. Koiuntura berri honetan errekurtsio finantzarioak eskasak dira, tentsio komertzialak arazoak dira eta ezinbesteko datuak falta dira oraindik. Aurrera egindako urratsak zalantzan daude NBEaren iritziz, merkataritza beherantz egingo delako eta berarekin batera kanpoko inbertsio zuzenak eta diru sortak ere jaitsiko dira [11].

Aurreko urteetan egiten ziren aurreikuspen onak zapuzten ari dira. Esaterako joan den hamarkadaren hasieran, CEPAL (Comisión Económica para América y Caribe) batzordeko idazkariak Jose Antonio Ocampo «Monterreyko Kontsentsua» kontrajartzen zion «Washingtongo Kontsentsuari» eta Nazio Batuen dinamika hartutako bide berria asuntxo ekonomikoetarako modu positiboan baloratzen zuen, bai ekonomia-aren dimentsio globalak eta ez bakarrik nazionalak aztertzen zirelako eta prozesua bera ez zelako Bretton Woods-en instituzioek gidatutako prozesu burokratiko eta antidemokratikoa baizik eta kontsulta eta parte hartze zabal baten ondorioa [12].

Alde positiboan ere datu eta estatistika nazional fidagarrien gorakada (129 herrialdeetatik 141era pasatu da 2017tik 2018ra) aipa dezakegu, baina Sahara Hegoaldeko Afrikan planen %25ek dute finantziario osoa, Europan eta Ipar Amerikan %95ek.

Herrialde «txirotuentzako» mesedegarri izan zitekeelakoan hasitako prozesuak analisten aburuz ez da gauzatzen ari. Adibidez, ALBOAN-ek dioenez: *Premiazko eta erabakigarriak diren bi helburu konpontzea: Herrialde hartzaileen gaineko baldintzen ezartzea murriztea, (oinarriko zerbitzuen pribatizazioa, adibidez) eta diru laguntzen funderako erabilera mugatzea, herrialde emaileen enpresen mesederako, laguntza tekniko eta kontratu bidez.* Eta horrek azken finean, arkitektura berri bat eraikitzeke ariketa politiko bat egiteko beharrezko adierazten du [13].

Sttota eta Scopetta analista europarrek diotenez etsigarria da 17. helburuak eskaintzen duen ikuspegi mugatua, Garapen Iraunkorraren Helburuak lortzeko egin dezakeen ekarpenari dagokienez. Aliantzak beste bide bat bezala aurkeztu behar dira, hots, Helburuak lortzeko beharrezkoak diren eraldaketan zerbitzura dagoen dinamika. Eta horrek eskatzen du maila anitzetan eta eragile anitzetan artean harreman sakonagoak ezartzeko beharra. Erantzukizun kolektiboa GIHa lortzeko; eta oinarri enpiriko irmoago bat

GIHak diseinatzeko eta hautatzeko. Ezagutza-trukea eta ikaskuntza sendoagoa duten aliantza-politikak [14].

3. KONKLUSIOAK: ARKITEKTURA BERRI BATERAKO PLANOAK ETA LANABESAK.

Arestian ikusi dugun bezala, Nazio Batuen Erakundetik sustatutako bai 2000.urteko Milurtekoaren Garapen Helburuetan eta 15 urte geroago Garapen Iraunkorraren Helburuetan ere aliantzak proposatzen dira helburu horiek lortzeko. Eta nire ustez galdera da, aliantzak noren artean eta zertarako?

Ikusi egin dugunez ez gaude koiunturarik onenean eta 2020 urtetik Aurrera munduko egoera pandemikoak ez du panoramika baikor bat erakusten NBEaren plangintzetarako. Eta galdera da, duela 30 urte, 1992an bai? Rio de Janeiroko «Lurraren Gailurra» koiuntura politiko-ekonomiko positibo batean eman zen baina Greenpeacek bi hitzekin laburtu zuen konferentzia horren emaitzak:«*Sold-out*». Salduta. Harrezkero, garapen iraunkorrerako bidea, hazkunde ekonomikoan, merkataritza hazkor eta librean eta ekonomia «berdean» izan ditu erreferentzia nagusiak eta horrek gaurko koiunturara eraman gaitu.

Horregatik, pentsatzen dugu norabide aldaketa erradikal bat behar dugula. Wolfgang Sachs pentsatzaile alemaniarren ustez, hazkunde sustengatuaren diskurtso neoliberalak izan da pautak markatu duena. Ipar garatuak daukan planetaren baliabideen menderatze oligarkikoaren aurka aritzeak, bitartekoak baino gehiago helburuak eztabaidatzea dakar. Eraginkortasunaz aritzeak ez du inongo zentzurik ez baitira askitasuna eta egokitasuna kontutant hartzen [15].

Bide beretik etorri dira garapen iraunkorraren planteamendu «faustikoak», hots, kapital gehiagorekin bakarrik lortu daiteke ingurugiroaren sendatzea. Zabal dezagun negozioa eta merkatuaren esku ikusezinak konponbidea ekarriko digu. Neoliberalismoaren diskurtso zaharra [16].

Eraginkortasunaz eta ekonomia berdetik aparte, egituren eta gizarte harremanen ekologizazio ez dekoratiboa baizik eta produkzio eta kontsumo ereduen aldaketarako, justizia sozialarekin laguntzaz nahi dutenek, egokitasuna zein demokrazia parte-hartzailearen tresna politikoak seinalatzen dituzte [17].

Ulrich Beck-ek instituzio zombiak deitzen zituen « hilda daudenak, bere denboratik kanpo baina bizirik irauten dutenak ». Eta nazioarteko eremuan Bretton Woods-eko akordioan jaio zirenak kategoria horretan daude gure ustez. Azken hiru hamarkadetan instituzio hauek «borondatezko» logika eta akordioak ezarri dituzte, eta emaitzak ez dira oso positiboak izan [18].

Norabide aldaketa beharrezko horretan eta aliantza berriak josteko ahaleginetan daudenek, aldiz, beste politika finantzario batzuk markatzen dituzte: 2008ko finantza-istripetik COVID-19aren krisira, gobernuek 6 trilioi dolar bota dituzte QE (Quantitative Easing) globalera, baina diru horrek ezer gutxi egin du inbertsio berdea bultzatzeko. Banketxe pribatuak fosil-fuelen inbertitzaile handienak dira. 2015eko Parisko Klimaren Akordioaz geroztik, 33 banketxek 1,9 trilioi dolar isuri dute erregai fosiletan [19].

COVID-19aren pandemiaren hasieran petrolioaren prezioak behera egin izanak inbertitzaileak fosiletatik urrundu ditzake. Finantza-merkatuen arau berriek azkar dezakete trantsizio hau. Gobernuek funtsezko aldaketak egin ditzakete erreskateen finantzaketan bildutakoen bilatzaile diren enpresa handientzat, besteak beste, enpresetan egindako erreformak eta «bonus» kulturaren amaiera, gizarte eta ingurumen helburuak lortzeko epe laburreko trukeak bultzatzen dituenak. Baina eraldaketa politiko horrek beste motako aliantzak eskatzen ditu.

BIBLIOGRAFIA

- [1] MEADOWS, Donella eta besteak. 1972. *Los límites del crecimiento: informe al Club de Roma sobre el predicamento de la humanidad*. Fondo de Cultura Económica, Mexico.
- [2] BARCENA, Iñaki. 2003. «Johannesburgoko irakaspenak: Ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunerako erronka global eta tokikoak» in I. Barcena (koord.) Globalizazioa eta ingurumena. Euskal begirada bat. UEU, Bilbao. 15-32 orri.
- [3] SUTCLIFFE, Bob. 1995. «Desarrollo frente a ecología». *Ecología Política, Icaria-Fuhem, Bartzelona*, 9.
- [4] COMISIÓN MUNDIAL PARA EL DESARROLLO Y EL MEDIO AMBIENTE. 1988. *Nuestro futuro común*. Alianza Editoril. Madril.
- [5] FRENCH, Hillary. 1993. *Después de la conferencia de Rio. El futuro del control medioambiental*. Libros de la Catarata/Bakeaz. Madril.
- [6] BARCENA, Iñaki. 2003. *Ibidem*.
- [7] GOMEZ GIL, Carlos. 2017/18. «Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS): una revisión crítica.» *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 140, 107-111 orriak.
- [8] ALBOAN FUNDAZIOA. 2008: «Milurtekoko Garapen Helburuak, Helburuak baino, garapenerako eskubidea» ALBOAN aldizkaria, 49.
- [9] GARAPEN IRAUNKORRERAKO 2030 Agenda txertatzea GrAL-etan (5. edizioa), 2021eko azaroaren 23an atzitura: <https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/garapen-iraunkorrerako-2030-agenda-txertatzea-gral>
- [10] NAZIO BATUEN ERAKUNDEA 2015 Transforming our World: The 2030 Agenda for Sustainable Development, 2021eko azaroaren 23an atzitura:

- <https://sustainabledevelopment.un.org/post2015/transformingourworld/publication>
- [11] NBE. 2020. The-Sustainable-Development-Goals-Report-2020_Spanish.pdf. 2020 urteko irailean kontsaltaturik. <https://unstats.un.org/sdgs/report/2020/The-Sustainable-Development-Goals-Report-2020.pdf>
 - [12] OCAMPO, Jose Antonio. 2002. La cumbre de Monterrey. 2020ko Irailean kontsaltaturik. <https://www.cepal.org/cgi-bin/getProd.asp?xml=/prensa/noticias/columnas/2/10332/P10332.xml&xsl=/prensa/tpl/p8f.xsl&base=/prensa/tpl/top-bottom.xsl>
 - [13] ALBOAN FUNDAZIOA. 2008. *Ibidem*.
 - [14] STOTT, Leda and SCOPETTA, Anette. 2020. «Partnerships for the Goals: Beyond SDG 17.» *Revista DIECISIETE*. **2**. Madrid. ISSN 2695-4427 Versión digital (pp. 29-38). DOI:10.36852/2695-4427_2020_02.0
 - [15] SACHS, Wolfgang. 1997. *Sustainable Development in Redclift & Woodgate (eds.)*. The International Handbook of Environmental Sociology. Edward Elgar. Cheltenham. G.Bretaña.
 - [16] GARCIA, Ernest. 1999. *El trampolín fáustico. Ciencia, mito y poder en el desarrollo sostenible*. Eds.Tilde. Valencia.
 - [17] BARCENA, Iñaki. 2001. «De qué hablamos cuando hablamos de desarrollo sostenible», en AA.VV. «Hacia un desarrollo rural sostenible» ECOS/Asoc. Cambalache. Cantabria.
 - [18] BECK, Ulrich. 2002. *Libertad o capitalismo. Conversaciones con Johannes Willms*. Paidós, Barcelona.
 - [19] REYES, Oscar. 2020. *Change Finance, not the Climate*. Institute for Social Policies/Transnational Institute, Amsterdam.